

Riau-Riau doinuak berriz ere mutu

1996ko alferrikako ahaleginaren ostean, aurten ere ez dute ibilbidea eginen

 Bezpera izanik, zinegotziek udaletxetik irten eta San Lorentzo parrokiarako bidea hartu ohi zuten, Riau-Riau oihuen artean. 10 minutuz lotuko zuen edonork bi punturen arteko soka, baina, 1996ko ahaleginaren ostean, aurtengoak ere huts eginen du.

Egia erran, sanferminetako ekintzarik ezagunenetakoa izanagatik ere, Riau-Riauak inoiz ez du bere aipamenik ahokatu egitarauaren lerroetan. Izan ere, ospatu zen urteetan jendeak bazekien arratsaldeko bortzetan ukaiten zuela hitzordua udaletxe enparantzaren inguruetan eta, hamarren bat minutu geroago, orduantxe agertuko zirela zingotziak, ate nagusitik: gizonezkoak frak beltzez, dotore, eta emakumeak, aldiz, errokararren antzina-ko soinekoetan jantzita, xarmant. Ondoren, La Pamplo-nesa orkestrak Astrain baltsaren doinuak inarosten zituela, eta entzuleak Riau-Riau errepikakorrarekin dantzaz zebiltzala, politikarien artaldeak San Lorentzo parrokiarako norantza hartuko zuen, San Fermin irudiaren aitzinean bezperak ospatzeko elizkizun berezian. Tartean, dena den, entzun beharrekoak izanen zituzten hiritarren kexa eta aldarriak, eta horrexegatik hamar minututan egin zitekeen bidea arras iluntzeraino luzatuko zen noizbait. Errekorretan gorenena, horrela, 1980koa da, sei ordu eta hiru ordu laurden iraun zuenlarik prozesio baldresak.



JOXE LACALLE



Programan inoiz aipamen zehatzik egin ez bada ere, jende orok daki Riau-Riauaren ordutegia eta ibilbidea.

Dantza etetea, aspaldikoa

Alabaina, batere garbi ez dagoen kontua da entzuleria zinegotzietz estreinakoz noiz oлдartu zitzaizen, noiz erabaki zuen herriak prozesioaren aitzakia pean —hitz, garrasi eta oihuak zirela medio— alkateari haserre agertzea. Jakina da, bai, Miguel Astrain musikariak moldaturiko *La Alegria de San Fermin* abestia, Erruki etxeko Musika Bandaren laguntzaz, 1909an estre-

natu zuela; Astrain bera baitzen bandaren gidari. Ordukoak dira bada lehendabiziko txunda, txunda eta txundak. Gero, 1914an, Inazio Baleztena iruinseme karlista bat, ziutateko peto-petoa, boterean zegoen alkatearen aurka agertzearen, ausartu omen zen baltsaren soinu pean dantzatzera, alkatearen ibilia oztopatuz. Eta jendeak gustura hartu omen zuen Baleztenaren lekukoa, urtero-urtero, uztailaren 6 orotan. Al- ta, 1927an Demetrio

1972an Riau-Riaua bertan behera uztea erabaki zuen, lehendabizikoz, Rouzault Iruñeko alkateak

Martinez ziutateko agintaria haserre agertu zen oso, eta debekatu zuen, «horrelako jo-kaerak astakiloen modukoak

izateagatik». Herriak bere horretan jarraitzen zuen baina, «astakiloen pare», eta 1923an Tomas Mata Lizaso alkateak bigarren debekatu zuen, «musika bandaren doinu garbiaren gain gizakiok baldreski kantuan aritzea gaizki ego- teagatik».

Errepublikak etorriko zen ondoren, eta, korporazioa eliz kutsuko ospakizunetatik at ibiliko zenez, 1932 eta 1936 urteetan alkatetza taldearen bezpera ospakizunik ez zen egonen; horrenbertzez, Riau-

Bilintx

DONOSTIA: Fermin Calbeton, 21
Tel.: 943 42 09 30 - 943 42 00 80 / Faxe: 943 42 23 63
IRUNEN: República Argentina, 4 - Tel.: 943 62 68 17
TOLOSAN: Arostegieta - Tel.: 943 67 35 33
BERGARAN: Ibargarai, 14 - Tel.: 943 76 40 50
E-mail: Bilintx@jalgi.com



ORAIN DENAK BATERA INTERNET-EN

megadenda
www.jalgi.com/megadenda

Arriaga

GASTEIZEN: San Prudentzio, 7
Tel.: 945 14 45 01 - Faxe: 945 13 56 01
San Anton plaza, 7
Tel.: 945 26 90 33 - Faxe: 945 26 22 12
E-mail: Arriaga@jalgi.com



Xalbador

IRUÑEA: Comedias, 14
Tel.: 948 22 41 67 / 948 22 99 81 - Faxe: 948 21 10 61
E-mail: Xalbador@jalgi.com



Urretxindorra

BILBON: Iparragirre, 28
Tel.: 94 424 02 28 / 94 424 43 96 - Faxe: 94 424 42 35
E-mail: Urretxindorra@jalgi.com

